



GIPUZKOA

Gipuzkoako Garraio Publikoko tarifen jaitsiera aztertu eta adostearen aldeko mozioa

Gipuzkoako Garraio Publikoko tarifen jaitsiera beharrezkoa da, egiten den bidaia dena dela ere, edo erabiltzen den garraibidea tren, lurraldebus edo hiri barruko zerbitzua izan.

Bidegiren diru-bilketaren ehuneko bat garraio publikoa sustatzera bideratzea jasotzen du 1/2011 Foru Dekretuaren 2. xedapen gehigarriak, Europako zuzentarauak irekitzen duen aukera baliatuz. Zalantzarik gabe, ekimen honi eutsiz gero, Gipuzkoako Foru Aldundiak klimaldaketaren aurkako borrokan ekarpena egingo luke, Gipuzkoako ahalmen handiko errepideak erabiltzean erregai fosileko ibilgailuen joan-etorriek sortzen dituzten CO2 isuriak murrizteko norabidean.

Garraio publikoa gehien erabiltzen duenari mesede egiten dion MUGIren filosofian sakonduz, beharrezkoa ikusten dugu laugarren tarte bat sortzea, deskontuak sektore gehiagotara zabaltzeko. Eta horrela, tarifen deskontuak agerikoak izanda, MUGI erakargarriagoa egitea lortuko genuke, bere erabilera bultzatuz.

Garraio publikoko murrizketak direla eta, tartean Irun-Brinkola aldiriko linean edo Buruntzaldeko autobusetan, erabiltzaileak galtzen ari da Gipuzkoako garraio publikoa.

Zerbitzuen gutxitzeak tren zein autobusen maiztasuna jaitea dakar, eta ondorioz, jende pilaketak sortzea errazten du eskaintzen diren zerbitzuetan. Aglomerazioen aurrean beldurra areagotzen da eta horrek eragin zuzena du zerbitzuaren erabileran.

Gauzak horrela, garraio publikoaren sistema inoiz baino gehiago indartzeko unea da, pandemian galdu dituen erabiltzaileak berreskuratu eta sistemara erabiltzaile berriak erakartzeaz gain, MUGI sistema martxan jartzeak ekarri zuen iraultzan sakondu behar da. Zalantzarik gabe, doako transbordoek erakargarriago egin dute MUGIren erabilera.

Hau guztiagatik, Zaldibiako Udaleko osoko bilkurak honakoa onartzen du:

1. Zaldibiako Udalak Gipuzkoako Garraio Lurralde Agintaritza osatzen duten erakundeei eskatzen die tarifa jaitsiera aztertu eta adostu dezatela. Horretarako, besteak beste, Bidegiren diru-bilketaren ehuneko bat baliatu daiteke, 1/2011 Foru

dekretuaren 2. xedapen gehigarriak jasotzen duen bezala, garraio publikoa sustatzea helburu izanik.

2. Zaldibiako Udalak Gipuzkoako Garraio Lurralde Agintaritza osatzen duten erakundeei eskatzen die tarifa jaitsiera horrek, erabiltzaile berrien sorrera helburu izan dezala eta garraio publikoa maiz erabiltzen duten erabiltzaileen onura bilatu dezala, tarifetan 4. tarte bat sortuz.
3. Zaldibiako Udalak irmoki defendatzen du momentua dela, garraio publiko sistema inoiz baino gehiago indartzeko, pandemian galdu dituen erabiltzaileak berreskuratzeko gain, erabiltzaile berriak sistemara batzeko eta horretarako beharrezko neurri guztiak aztertu beharko lirakeela erakunde ezberdinek osatzen duten Gipuzkoako Garraio Lurralde Agintaritzan. Izan ere, Gipuzkoako Garraio Lurralde Agintaritzaren eginkizuna da irisgarria eta kalitatezkoa den mugikortasuna bultzatzea, gizartearentzat eta lurralde historikoan zehar, gaur egungo zein etorkizuneko eskariari jaramon eginez.
4. Zaldibiako Udalak erabiltzaile gutxitzea dela medio edo bestelako edozein erabaki tarteko Gipuzkoako garraio sisteman eman diren eta ematen ari diren zerbitzu murrizketak salatzen ditu. Garraio sistema publikoa indartzearen aurka doaz, besteak beste, aldirikoetan ematen ari den egoera edota autobusetako hainbat emakidekin eman diren arazoak.

Zaldibian, 2022ko apirilean